



URRETXU • ZUMARRAGA

SANTA LUTZI FERIA

abenduak **13** diciembre
2023



**ZUMARRAGA
UDALA**



Urretxuko udala

ABENDUAK 13, SANTA LUTZI FERIA 2023

Erdi arotik datorren Santa Lutzi Feria gaur egun ere merkatu bizia da. Zumarraga eta Urretxuko udalek ahalegin handia egiten ari dira lehen sektorea eta bertako komertzioa bultzatzeko, salerosketak indartzeko... Feriak bertako produktu eta erosleez gain kanpokoak ere erakartzen ditu gure herriotara eta hori ona da, gure mugetatik haratago eraman eta zabaltzen gaituelako.

Ganadu Feria ez ezik, azkeneko bi hamarkadatan, arrakasta handia lortu duten sariketa ezberdinak ospatzen dira. Hala nola, zaldiak, oilasko eta kapoiak, fruituak, barazkiak eta sagarrak. Gainera Azoka ezohizkoa eta artisau erakusketa ezberdinak aurkitu daitezke.

Santa Lutzi Feria herri bien artean egin ahal izateak aberastasuna besterik ez dio ematen ehunka urteko tradizioa dakarkigun festari. Feria hau, kulturak biltzeko ahalegin gisa sortu zen, eta horretarako (merkataritzaren) elkartrukeaz baliatu ziren gure aurrekoak.

Azokaren inguruan beste hainbat kultur eta kirol ekintzak antolatzen dira: musikariak, herri kirolak, argazki rallya, pilota partidak...

La Feria de Santa Lucía, que viene de la Edad Media, sigue siendo hoy un mercado vivo. Los ayuntamientos de Zumarraga y Urretxu están haciendo un gran esfuerzo para impulsar el primer sector y el comercio local, reforzar las compraventas... La feria atrae a nuestros pueblos, además de productos locales y compradores, a los de fuera, y eso es bueno porque nos lleva y amplía más allá de nuestras fronteras.

Además de la Feria de Ganado, en las dos últimas décadas, se celebran diferentes concursos. Como caballos, pollos y capones, frutas, verduras y manzanas reineta. Además de una Feria extraordinaria se pueden encontrar diferentes exposiciones de productos artesanales.

El hecho de que la Feria de Santa Lucía se pueda celebrar entre ambos pueblos sólo aporta riqueza a una feria con muchos años de tradición. Esta feria nació como un intento de reunir culturas, y para ello nuestros antecesores se aprovecharon del intercambio (comercial).

En torno a la feria se organizan otras actividades culturales y deportivas: músicos, herri kirolak, rally fotográfico, partidos de pelota...



**ZUMARRAGAKO
UDALA**



Urretxuko udala

ZUMARRAGAN...

Abere sariketa geroz eta indar gehiago hartzen ari da. Urtetik urtera gehitzen doaz sariketara aurkezten diren buruak hala nola salmentarako ekartzen dituztenak.

Makinaria edo lanerako tresneriak ere bere gunea dauka gure ferian.

Fruta eta barazkiak ere bere garrantzia dute, gure eskualdeko baserritarrak bere egunerokoan egiten dute lana ikusteko aukera ere bada.

Artisauen lana ere lehenesten da eta bertan beraien produktuak nola egiten dituzten ikusteko parada izango da.

Eta eguna amaitzeko **idi probak izango dira** Euskadi plazan

URRETXUN ARDO DASTEKETA ETA EZTI LEHIAKETA PROTAGONISTA

Egun hauetan Urretxu berezi egiten duen ekintzarik bada, ekintza propiorik, hori Ardo Azoka eta Arabako Errioxako urteko ardoaren dastaketa dira. Izan ere, 30 urte beteko dira aurten ardo feriak eta goraiatzekoa da Arabako Errioxako upategiek eta ardoek bakarrik parte hartzen dutela ekitaldian.

Abenduaren 12an, azoka irekieraren ondoren, ardo dastaketaz gozatu ahal izango dugu, 19:00etan, Udaletxeko Portaloian. Manuel Ruiz enologoak zuzentzen duen dastaketan, Errioxako Urteko Ardoa baino ez da onartzen. Aurten gainera, iazko arrakastaren ostean, Mikel Garaizabal enologo ezaguna ere arituko da, Manuel Ruizekin elkarlanean.

Ardoa bakarrik ez, Urretxun Eztia ere protagonista izaten da Santa Lutzi egunean. Abenduaren 13an, eskualdeko ezti lehiaketa egingo da bertako ezti elkarlearekin elkarlanean.

Ekitaldiei begira, nabarmentzekoak dira 12:00etan, Gernikako Arbola Plazan burutuko den "Inklusioaren aterkia" ekimena, non zumitzez osatuko eskultura komunitario-kolaboratiboa sortuko den. Jarraian, 12:30ean, Herri Kirol saioa izango dugu Ederrena pilotalekuan eta jarraian Artzain txakur eta ardien erakustaldi komentatua, Zubimusu plazan. Horren ondoren, 17:00etan, profesionalen arteko pilota partidak izango dira Ederrena pilotalekuan, eskuz binakako txapelketaren barruan, eta kalean dabilenarentzat, 17:30etatik aurrera, erromeria Urretxuko-Zumarragako kaleetatik zehar.

SANTA LUTZI FERIA 2023 ZUMARRAGA eta URRETXU

Abenduak 10, igandea

18:00 LUZIO GABIRIAREN OMENEZKO BERTSO JAIALDIA ([Zelai Arizti aretoa , Zumarraga](#))

- ANDONI EGAÑA
- UXUE FERNANDEZ
- JULIO SOTO
- GARAZI NAVARRO

Abenduak 12, asteartea

18:00 – 21:30: ARABAKO ERRIOXAKO XXX: ARDO AZOKA ([Iparragirre plaza, Urretxu](#))

19:00.- MANUEL RUIZ" ARABAKO ERRIOXAKO ARDO DASTAKETA IREKIA
([udaletxeko portaloia, Urretxu](#))

Abenduak 13, asteazkena

08:00 - 14:00:

- ZALDI-AZIENDAREN NAHIZ BESTELAKO ABEREEN FERIA ETA SARIKETA
[Urdaneta hiribideko feria tokian \(Zumarraga\)](#)
- NEKAZARITZAKO TRESNEN FERIA,
[La Salle-Legazpi ikastetxeko patioan \(Zumarraga\)](#)

09:00 - 14:00 AZOKA BEREZIAK:

- FRUTA eta BARAZKI SARIKETAK.
Euskal Herriko jakiak salgai izango dira (eztia, ogia, gazta, taloak, e.a.).
[Gernikako Arbola plazan \(Urretxu\)](#)
- ERREZIL SAGAR, FRUTA eta BARAZKI SARIKETAK.
Eskulan erakusketa eta Euskal Herriko jakiak salgai izango dira
(eztia, ogia, gazta, taloak, e.a.).
[Euskadi plazan \(Zumarraga\)](#)
- OILASKO eta KAPOI SARIKETAK
[Areizaga - Kalebarren plazan \(Urretxu - Zumarraga\)](#)
- Eskualdeko EZTI SARIKETA, Gipuzkoako Eztizaleen Elkarteak antolatuta.
[Areizaga plazan \(Urretxu\)](#)

09:00 - 14:00 ESKULANEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
[Urretxuko Iparragirre kalean](#)

09:00 - 15:00 ESKULANEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
[Zumarragako Euskadi plazan eta Zelai Arizti pilotalekuan.](#)

09:00 - 16:30 ARABAKO ERRIOXAKO XXX. ARDO AZOKA.
[Iparragirre plazan \(Urretxu\)](#)

13:30 Fruta, barazki, errezil sagar, ezti eta ganadu sariketetako SARI BANAKETA.
[Areizaga - kalebarren plazan \(Urretxu - Zumarraga\)](#)
Horietaz gain, honako jarduerak ere izango dira:



**ZUMARRAGAKO
UDALA**



Urretxuko udala

09:00 Urretxuko Lizarriturri Txistulari Elkarte eta Iratzarri Dultzainarien KALEJIRA.

09:00 Zumarraga eta Urretxuko Santa Lutzi Feriako ARGAZKI RALLYA.

Lehiakideak: nahi duten zale guztiek har dezakete parte.

Lanak: digitala, jpg.

Gaiak: izena emateko orduan jakinaraziko dira.

Nola parte hartu: abenduaren 13an, goizeko 9etatik 10ak bitartean [Urretxuko kultur etxera](#) azalduta.

10:00 Tolosako Dultzainarien DIANA.

Egun osoan, Zumarraga-Urretxuko trikitilarien KALEJIRA:

10:30 - 12:30 Secundino Esnaola musika eskolako trikitilari taldearen KALEJIRA, Zumarraga eta Urretxuko kaleetan zehar.

11:30 Zumarragako Musika Banda eta Antxiñako Ama Txistulari Taldearen KALEJIRA.

12:30 HERRI-KIROLAK , [Ederrena pilotalekuan \(Urretxu\)](#).

13:30 ARTZAIN TXAKUR ERAKUSTALDI KOMENTATUA ARDIEKIN [Zubimusu plaza \(Urretxu\)](#)

11:00 – 14:00 **NON DAGO WALLY?**

Edozeinek har dezake parte.

Azokan barrena antolatzaileek banatutako Wally eta bere hiru lagunak aurkitu eta mugikorrarekin argazki bana ateratzea da lehiaketaren helburua.

Lau pertsonaiekin argazkia ateratzea lortzen dutenen artean, azokan erositako produktuekin osatutako bi saski zozketatuko dira.

12:00 – 14:00 "INKLUSIOAREN ATERKIA". [Labeaga 1 \(Urretxu\)](#). Herri ezberdinetako elkarte eta eragile desberdinen artean zumitzez osatuko den, eskultura komunitario kolaboratibo bat sortuko da.

17:00 PROFESIONALEN ARTEKO PILOTA PARTIDAK. [Ederrena pilotalekuan \(Urretxu\)](#)

Serie B liga

EGIGUREN V- ESKUZA

ZUBIZARRETA III - UGARTEMENDIA

Binakako Liga

EZKURDIA-TOLOSA

PEÑA II – ALBISU

DARIO-ALDABE vs MATA EROSTARBE

17:30 ERROMERIA ZATEKEEN TALDEAREKIN [Areizaga-Kalebarren plaza \(Urretxu-Zumarraga\)](#)

18:00 IDI PROBAK, [Euskadi plazan \(Zumarraga\)](#)

Parte hartzaileak:

Parte-hartzaileak / Participantes:

- Iker Zubillaga, "Igeldo"
- Asier Izagirre, "Ipeñarrieta"
- Egoitz Armaolea

Ondoren, Idi probetako SARI BANAKETA



**ZUMARRAGA
UDALA**



Urretxuko udala

FERIA DE SANTA LUCIA 2023

URRETXU y ZUMARRAGA

10 de diciembre, domingo

18:00 LUZIO GABIRIAREN OMENEZKO BERTSO JAIALDIA ([Zelai Arizti aretoa, Zumarraga](#))

- ANDONI EGAÑA
- UXUE FERNANDEZ
- JULIO SOTO
- GARAZI NAVARRO

12 de diciembre, martes

18:00-21:30 XXX FERIA DE VINO DE RIOJA ALAVESA ([plaza Iparragirre, Urretxu](#))

19:00 CATA ABIERTA DE VINO DE RIOJA ALAVESA "MANUEL RUIZ" ([udaletxeko portaloia, Urretxu](#))

13 de diciembre, miércoles

8:00 - 14:00:

- EXPOSICIÓN DE GANADO EQUINO y otras especies, así como los PREMIOS DE GANADO EQUINO.
[Avenida Urdaneta \(Zumarraga\)](#)
 - EXPOSICIÓN DE MAQUINARIA AGRÍCOLA
[Patio de La Salle-Legazpi ikastetxea \(Zumarraga\)](#)
 - 09:00 - 14:00 MERCADOS EXTRAORDINARIOS:
 - PREMIOS de FRUTAS y VERDURAS.
Exposición y venta de productos del país: miel, pan, queso, talos, etc.
[Plaza Gernikako Arbola \(Urretxu\)](#)
 - PREMIOS de MANZANA REINETA, FRUTAS y VERDURAS.
Exposición y venta de plantas, productos del país: miel, pan, queso, talos, etc. y exhibición de trabajos de artesanía, en diferentes especialidades.
[Plaza de Euskadi \(Zumarraga\)](#)
 - PREMIOS de CAPONES y POLLOS
[Plaza Kalebarren - Areizaga \(Urretxu - Zumarraga\)](#)
 - PREMIO DE MIEL DE LA COMARCA, organizado por la Asociación de Apicultores de Gipuzkoa.
[Areizaga kalea \(Urretxu\)](#)
 - 09:00 - 14:00 EXPOSICIÓN Y VENTA DE TRABAJOS DE ARTESANÍA.
[Calle Iparragirre \(Urretxu\)](#)
 - 09:00 - 15:00 EXPOSICIÓN Y VENTA DE TRABAJOS DE ARTESANÍA.
[Plaza Euskadi y frontón Zelai Arizti \(Zumarraga\)](#)
 - 09:00 - 16:30 XXX FERIA DE VINO DE RIOJA ALAVESA.
Participarán bodegas con excelentes vinos que se podrán degustar y comprar.
[Plaza Iparragirre \(Urretxu\)](#)
- 13:30 ENTREGA DE PREMIOS de frutas, verduras, manzana reineta, miel y ganado.
[Plaza Areizaga - Kalebarren \(Urretxu - Zumarraga\)](#)



**ZUMARRAGO
UDALA**



Urretxuko udala

contaremos con:

09:00 PASACALLE a cargo de la Agrupación de Txistularis Lizarriturri y los dulzaineros Iratzarri de Urretxu.

09:00 RALLY FOTOGRÁFICO "Feria de Santa Lucía" de Zumarraga y Urretxu.

Concursantes: podrán participar todos los/as aficionados/as que lo deseen.

Obra: Formato digital.jpg.

Temas: Se darán a conocer en el momento de la inscripción.

Como concursar: presentándose el día 13 de diciembre, en la [Casa de Cultura de Urretxu](#), desde las 9 h. hasta las 10 h

10:00 DIANA por los dulzaineros de Tolosa.

Durante todo el día, PASACALLE de los trikitilaris de ambos municipios

10:30 - 12:30

PASACALLE con el grupo de trikitilaris de la escuela de música Secundino Esnaola, por las calles de Zumarraga y Urretxu.

11:30 PASACALLE con la Banda de Txistularis Antxiñako Ama y Zumarragako Musika Banda.

12:30 DEPORTE RURAL [Frontón Ederrena \(Urretxu\)](#) Entrada gratuita

13:30 DEMOSTRACIÓN COMENTADA DE PERROS DE PASTOR CON OVEJAS. [Zubimusu plaza \(Urretxu\)](#)

11:00 – 14:00 **NON DAGO WALLY?**

Por toda la feria habrá que buscar a Wally y sus amigos y sacarles una foto con el móvil. Entre todas las personas que consigan localizar a los 4 personajes se sortearán dos lotes con productos de la feria.

12:00 – 14:00 **“EL PARAGÜAS DE LA INCLUSIÓN”** Calle Labeaga 1 (Urretxu). Se creará entre distintas asociaciones socioculturales de diferentes localidades una escultura comunitario-colaborativa de mimbre

17:00 PARTIDOS DE PELOTA ENTRE PROFESIONALES Frontón Ederrena (Urretxu)

Serie B liga

EGIGUREN V- ESKUZA

ZUBIZARRETA III - UGARTEMENDIA

Binakako Liga

EZKURDIA-TOLOSA

PEÑA II – ALBISU

DARIO-ALDABE vs MATA EROSTARBE

17:30 ROMERIA CON EL GRUPO ZATEKEEN Areizaga-Kalebarren plaza (Urretxu-Zumarraga)

18:00 ARRASTRE DE PIEDRA [Plaza de Euskadi \(Zumarraga\)](#)

Parte-hartzaileak / Participantes:

- Iker Zubillaga, "Igeldo"

- Asier Izagirre, "Ipeñarrieta".

- Egoitz Armaolea

A continuación, ENTREGA DE PREMIOS de la prueba de arrastre de piedra.



**XXXVI. LUZIO
GABIRIAREN OMENEZKO
BERTSO-JAIALDIA**

**Abenduaren 10ean 18:00etan,
Zelai-Arizti aretoan**



ANDONI EGAÑA

UXUE FERNANDEZ

JULIO SOTO

GARAZI NAVARRO



bertsotan

SANTA LUTZI FERIA * URRETXU 2023

ABENDUAK **12** DICIEMBRE

“Manuel Ruiz”

ARABAKO ERRIOXAKO
ARDO DASTAKETA IREKIA
CATA ABIERTA DE VINO DE RIOJA ALAVESA

Cosecha
2023
Uzta

MANUEL RUIZ
ENOLOGOAREN AZALPENAREKIN
Con los comentarios del enólogo Manuel Ruiz
Dinamizatzailea / Dinamizador:
MIKEL GARAIZABAL (enolgoa)

* Udaletxeko portaloian * 19:00
Portalón del
ayuntamiento

Ardo dastaketa
Cata de vino + 2 Pintxo 5€
Salgai kultur etxean
abenduren 5, 7 eta 11an
A la venta en la casa de cultura el 5, 7 y 11 de diciembre

ABENDUAK **12/13** DICIEMBRE

ARABAKO ERRIOXAKO
XXX. ARDO AZOKA
FERIA DE VINO DE RIOJA ALAVESA

Arabako Errioxako upategi eta pintxoak, musika ... / Bodegas de Rioja Alavesa y pinchos, música...

* Iparragirre plaza (Urretxu) * Ordutegia / Horario: Abenduak 12: 18:00 - 22:00 / Abenduak 13: 09:00 - 16:00



Urretxuko udala


www.urretxu.eus

Urretxuko udala

Gipuzkoako
Foru Alderdiak
Diputazioa Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ORAIN

k
kutxabank



ESKU PILOTA

Abenduak

13

asteazkena
2023

URRETXU

17:00

EDERRENA PILOTALEKUA

Serie B liga

**EGIGUREN V-ESKUZA
ZUBIZARRETA III-UGARTEMENDIA**

Binakako Liga

**EZKURDIA-TOLOSA
PEÑA II-ALBISU**

DARIO-ALDABE vs MATA-EROSTARBE

Sarrerak internet: www.entradasfronton.com

Partido egunean txartel leihatilan

Laguntzailea: URRETXUKO
UDALA




baiko
PILOTA





NON DAGO WALLY ?

**AURKITU WALLY ETA BERE LAGUNAK
SANTA LUTZI FERIAN ZEHAR ETA
IRABAZI SARI ZORAGARRIAK!**



Nola parte hartu?


Eguna: Abenduak 13

Tokia: Areizaga-kalebarren plaza

Ordua: 11:00etatik 14:00etara

Beharrezkoa: argazki kamera edo mugikorra

Adin guztiei zuzendua



ZUMARRAGAKO SARIKETAK ETA OINARRIAK

ZUMARRAGAKO ZALDI ABEREEN SARIKETAKO ARAUDIA 2023

1.- Sariketara ekar daitezkeen abereen zehaztasunak

Pottoka zaldi-arrazakotzat hartuko dira Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko azaroaren 12ko Aginduan "Euskal Poneya edo Pottoka" zaldi-arrazaren arau espezifikoekin bat datozenak.

Euskal Herriko Mendiko Zaldia zaldi-arrazakotzat hartuko dira Nekazaritza eta Arrantza Sailak araututako arraza-prototipoarekin bat datozenak, 2015eko azaroaren 30eko Aginduan "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" zaldi-arrazaren liburu genealogikoari buruzko arau bereziak onartzen dituenak.

Haragitarako zaldi aberetzat hartuko dira bretoi arrazaren, arraza ardandarraren edo pertxeroiaren adarretik nahiz horien arteko nahasketatik datozen zaldiak. Abere horien ezaugarri nagusia handiak eta gihartsuak izatea da, eta bizi diren inguruneari ederki egokituta egotea.

2.- Sariketaren atalak

Sariketak hiru atal nagusi izango ditu:

a) **Pottokak.** A atala. Honako sariak emango dira:

- Zaldiak (3 urte edo gehiagokoak): 3 sari (gehienez) 300 €koak
- Behorrak (3 urte edo gehiagokoak): 3 sari (gehienez) 250 €koak
- Urteko moxala (2023an jaiotako zaldikoa nahiz behorra): 3 sari (gehienez) 200 €koak

b) **Euskal Herriko Mendiko Zaldia.**

- Zaldiak (3 urte edo gehiagokoak): 3 sari (gehienez) 300 €koak
- Behorrak (3 urte edo gehiagokoak): 3 sari (gehienez) 250 €koak
- Urteko moxala (2023an jaiotako zaldikoa nahiz behorra): 3 sari (gehienez) 200 €koak

d) **Haragitarako Zaldia.**

- Zaldia (3 urte edo gehiagokoak): sari bat 300 €koa
- Behorra (3 urte edo gehiagokoak): sari bat 250 €koa
- Urteko moxala (2023an jaiotako zaldikoa nahiz behorra): sari bat 200 €koa

Haragitarako sariketako baldintzak betetzen dituzten zaldiek 90 €ko dieta jasoko dute, eta behorrak eta moxalak 60 €koa; baina, gehienez ere, 360 €ko gehieneko dieta emango da ganaduzaleko (dirua beraiek emandako kontu zenbakian sartuko da).

Dietak Udalak zehaztutako kopurua (20 buru) gaindituko balu, proportzionalki banatuko da.

e) **Ezkio-Itsaso, Gabiria, Legazpi, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarragako abere-talde onena aurkezten duenarentzat:**

- 250 euro

Saria jasotzen dutenek garaikurra ere izango dute.

Epaimahaiak, atalen batean edo atal guztietan, saria merezi duenik ez dagoela ebatziz gero, sari hori eman gabe utz dezake.

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan, eguerdiko 13:30etan hasiko den ekitaldian.
Abere jabea sari banaketan agertzen ez bada, sariari uko egin diola ulertuko da.

3.- Sarietako epaimahaia

Sarietako epaimahaia Zumarragako Alkate jaunak izendatuko du zinegotzi arduradunaren proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko, pribatu edo partikularren iritzia.

Epaimahaia gutxienez hiru teknikarik osatuko dute, eta gehienez bostek: guztiak ere gai honetan adituak izango dira. Teknikari horietako bat Epaimahaiko idazkaria izango da, eta erabakia agiri batean jasoko du. Erabaki-agiriak udaletxeko idazkaritzan egon beharko du abenduaren 13ko eguerdiko 12:30ak baino lehen.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horretarako honako irizpideak hartuko dituzte kontuan:

4.- Kontuan hartuko diren ezaugarriak

- a) *Haragitarako* zaldi abereetan, ezaugarri morfologiko egokiak izatea, eta *Pottoketan* eta *Euskal Herriko Mendi Zaldietan* arraza-prototipoarekin bat etortzea.
- b) Adina.
- c) Sexua.

5.- Sarietaren baldintzak

Pottoka, Euskal Herriko Mendiko Zaldia eta haragitarako zaldi-abereak: Ganaduzaleak parte hartzeko asmoaren berri jakinarazi beharko dio Zumarragako Udaleko Kultura Batzordeari, **azaroaren 21eko 14:00ak baino lehen**, 943-72.35.10 telefonora deituta. Honela, sarietan parte hartuko duten abereentzat toki berezia prestatuko da. Izena ematerakoan honako datuok jakinarazi beharko dira:

- Ganaduzalearen izena eta helbidea.
- Sarietako atal bakoitzera aurkeztu nahi dituen abelburuen identifikazio zenbakiak. Sarietara bakoitzera gehienez ere BOST abere aurkez ditzake.
- Pottoken kasuan abereen kalifikazio agiria, dagokion Lurraldeko Pottoka Elkartek emana
- Euskal Herriko Mendiko Zaldiaren kasuan ere, abereen kalifikazio agiria, dagokion Lurraldeko Euskal Herriko Mendiko Zaldien elkarteak emana.

Ganadua ganaduzaleak berak ekarri beharko du abenduaren 13ko goizeko 9:00ak baino lehen Urdaneta hiribideko feria-lekura, eta bertan zehaztuko diote non jarri behar dituen abereak, sarietako abereentzat leku berezia izango baita. Eguerdiko 14:00ak baino lehen ezin izango da sarietako abererik jaso.

Abere guztiek gaur egungo legediak eskatzen dituen osasun eta identifikazio-agiriak izan beharko dituzte, eta antolatzaileek zehaztutako lekuetan lotuta egon beharko dute.

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten abereak eragin ditzaketen kalteak, min hartze nahiz bestelakorik: ez ganaduzaleari gertatutakorik ez ikusleei eragindakorik ere.

REGLAMENTO DE LOS PREMIOS DE GANADO EQUINO DE ZUMARRAGA 2023

1.- Definiciones del ganado objeto de premio

Se considera equino "Pottoka" al que cumple el prototipo racial determinado en la ORDEN de 12 de noviembre de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza equina Poney Vasco-Pottoka.

Se considera equino "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" al que cumple el prototipo racial determinado en la Orden 30/11/2015 del Departamento de Agricultura y Pesca por el que se aprueba la Reglamentación específica del libro genealógico de la raza "Euskal Herriko Mendiko Zaldia".

Se considera ganado equino de aptitud cárnica a los équidos procedentes del tronco formado por las razas bretona, ardanesa, percherona y sus cruces, cuya principal característica es su elevado desarrollo muscular y adaptación al medio físico.

2.- Los premios

Constarán de tres secciones principales:

- a) **Equinos de raza "Pottoka". Sección "A".**
 - Sementales: (3 años o más): 3 premios (como máximo) de 300€
 - Yeguas: (3 años o más): 3 premios (como máximo) de 250€
 - Potro/a nacido en el año **2023**: 3 premios (como máximo) de 200€

- b) **Caballo de monte del País Vasco.**
 - Sementales: (3 años o más): 3 premios (como máximo) de 300€
 - Yeguas: (3 años o más): 3 premios (como máximo) de 250€
 - Potro/a nacido en el año **2023**: 3 premios (como máximo) de 200€

- c) **Ganado caballero de aptitud cárnica.**
 - Semental: (3 años o más): 1 premio de 300€
 - Yegua: (3 años o más): 1 premio de 250€
 - Potro/a nacido en el año **2023**: 1 premio de 200€

En caso de cumplir las condiciones de la categoría de aptitud cárnica, se establece una dieta de 90 € por semental y 60 € por yegua y potro/a, estableciéndose como máximo una dieta de 360 € por ganadero (el pago se hará mediante ingreso en cuenta).

Si las dietas superaran la cantidad máxima establecida por la organización (20 cabezas), éstas se distribuirán de forma proporcional.

- d) **Mejor lote de Ezkio-Itsaso, Gabiria, Legazpi, Ormaiztegi, Urretxu y Zumarraga**
 - 250 euros

Todos/as los premiados/as recibirán trofeo.

En el supuesto de no reunir las condiciones adecuadas, el Jurado podrá declarar desiertos todos o alguno de los premios.

Los premios se entregarán, en la Plaza Kalebarren-Areizaga, en un acto público a celebrar a partir de las 13:30 horas.

La ausencia del criador en el acto de entrega de premios, se considerará como renuncia al mismo.

3.- Jurado

El Jurado será designado por el Sr. Alcalde de Zumarraga, a propuesta del Concejal Delegado y contando con la colaboración de las Instituciones Públicas, entidades privadas y particulares que se consideren expertos en el tema.

Formarán parte del jurado un mínimo de tres y un máximo de cinco técnicos, de reconocido prestigio, uno de los cuales actuará como Secretario, redactando un Acta de su fallo, que se depositará en la Secretaría del Ayuntamiento, antes de las 12,30 horas del día 13 de Diciembre.

Su decisión, que será inapelable, se adoptará conforme a los siguientes criterios:

4.- Características a valorar

- a) Características morfológicas orientadas hacia la aptitud cárnica, en la sección c) y performance de la raza para los équidos "Pottoka" y caballo de monte de Euskal Herria
- b) Edad.
- c) Sexo.

5.- Condiciones

Ganado caballar de raza Pottoka, de monte del País Vasco y de aptitud cárnica: El criador/a deberá notificar su intención de concursar al Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zumarraga, **antes de las 14:00 horas del 21 de noviembre**, llamando al teléfono 943-72.35.10. De este modo, se dispondrá de un lugar específico para el ganado presentado a concurso. En el momento de la inscripción, deberá facilitar los siguientes datos:

- Nombre y domicilio del criador.
- Número de identificación de las cabezas de ganado presentadas a cada concurso, hasta un máximo de CINCO.
- En la raza Pottoka el ganado presentado en las secciones de sementales y yeguas, deberán presentar el certificado de calificación expedido por la Asociación de Pottoka del territorio que corresponda.
- En el caso del caballo de monte del País Vasco deberán presentar el certificado de calificación expedido por la Asociación del País Vasco de caballo de monte del territorio que corresponda.

El criador/a deberá presentarse, por sus medios, ante el Comité de Admisión, en el espacio habilitado como recinto ferial, en la Avenida del P. Urdaneta de Zumarraga, antes de las 9:00 horas del día 13 de Diciembre, donde le señalarán los expositores, especialmente habilitados para los Premios, que le han sido asignados, no pudiendo retirar los animales hasta las 14,00 horas del mismo día.

El ganado irá provisto de la documentación sanitaria y la documentación de identificación exigida por la legislación vigente. Además deberá seguir las indicaciones de los organizadores en lo referente a los espacios de colocación y atado de animales.

La organización no se hace responsable de lesiones o cualquier otra circunstancia, tanto a terceros como al propio sujeto, en caso de no cumplir las indicaciones señaladas anteriormente.

ZUMARRAGAKO BARAZKI, FRUTA ETA ERREZIL SAGARREN SARIKETA 2023

1.- BARAZKI, FRUTA ETA ERREZIL SAGARRAK

Partaideek norberak landutako barazki, fruta eta errezil sagarrak aurkeztu beharko dituzte.

Sariketak hiru atal berezi izango ditu:

- a) Barazkiak.
- b) Frutak.
- d) Errezil sagarrak.

2.- SARIKETAKO EPAIMAHAIA

Sariketako epaimahaia Zumarragako alkateak izendatuko du zinegotzi arduradunaren proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko nahiz pribatu edo jakitunen iritzia.

Epaimahaia gutxienez bi teknikarik osatuko dute, eta gehienez bostek, guztiak gai honetan adituak izango direlarik. Teknikari horietako bat Epaimahaiko idazkaria izango da, eta erabakia agiri batean jasoko du. Erabaki agiriak udaletxeko Idazkaritzan egon beharko du abenduaren 13ko goizeko 12,30ak baino lehen.

Udalek izendatuko dituzten administrazio langileen laguntza jasoko du Epaimahaiak.

Aldez aurretik jakingo da zein diren epaimahaikideak.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horretarako honako irizpideak hartuko ditu kontuan:

3.- KONTUAN HARTUKO DIREN EZAUGARRIAK

- a) Kalitatea (tamaina, ekologikoa izatea, itxura, kolorea, heldutasun puntua...).
- b) Aurkezteko era.
- d) Aniztasuna.

4.- SARIKETAKO BALDINTZAK

Zumarragako Santa Lutzitako urteroko lehiaketan parte hartzeko :

1. Nekazaritzako Baserri erregistroaren agiria aurkeztea.
2. Barazkiak: gutxienez 5 barazki mota aurkeztu beharko dira: mota bakoitzeko bi kilo gutxienez. Aleka saltzen diren produktuak, gutxienez dozena bat, mota bakoitzeko.
3. Fruta: gutxienez 5 fruta mota aurkeztu beharko dira eta gutxienez 2 kilo mota bakoitzeko.
4. Errezil sagarrak: gutxienez 10 kilo sagar ekarri beharko dira.

Interesatuak aldez aurretik izena eman beharko du **Zumarragako udaletxean**, azaroaren 21eko eguerdiko ordu biak baino lehen; 943-72.35.10 telefonora deituz ere egin daiteke.

Izena ematerakoan, honako datuok ekarri beharko dira:

- Lehiakidearen izena, helbidea eta NA zenbakia.
- Nekazaritzako baserri erregistroaren agiria.
- Zein sariketan parte hartu nahi duen adierazi beharko da.
- Kontu zenbakia (20 digitu)

Postuak goizeko 9etarako jarri beharko dira, eta ordu horretarako jarri gabekorik ez da onartuko. Bakoitza non jarri Udalak erabakiko du.

5.- SARIAK

BARAZKI ETA FRUTA SARIKETA

ERREZIL SAGARREN SARIKETA

Sari kategoriara iristen direnek, (gehienez 4) 250 euroko saria jasoko dute.	Sari kategoriara iristen diren guztiek, (gehienez 4) 150 euroko saria jasoko dute.
Ezkio, Gabiria, Itsaso, Legazpi, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarragako saridunei 100 euroko gehigarria emango zaie.	

Saria jasotzen dutenek garaikurra ere izango dute.

Sariketako baldintzak betetzen dituztenek 100 euroko dieta jasoko dute, baina nolnahi ere dieta bakarra emango da baserriko (beraiek emandako kontu zenbakian sartuko zaie dirua).

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan, eguerdiko 13:30ean hasiko den ekitaldian.

Lehiakide sariduna sari banaketan ageri ez bada, sariari uko egin diola ulertuko da.

6.- OHARRAK

1.- Epaimahaiak komenigarria ikusten badu, produktuen benetakotasuna ziurtatzeko bisita bat egingo du.

2.- Sariketan parte hartzeak berekin dakar jarritako baldintzak onartzea.

3.- Parte hartzaile guztiei bertako produktuak saltzeko aukera eskainiko zaie.



ZUMARRAGA PARTAIDETZA DATUAK

ZUMARRAGAKO SARIKETAK

BARAZKIA / VERDURAS	4 partaide
ERREZIL SAGARRA / MANZANA REINETA	6 partaide
FRUTA	4 partaide
POTTOKA	45 buru
EH MENDIKO ZALDIA / CABALLO DE MONTE DEL P.V.	70 buru
HARAGITARAKO ZALDI ABEREA / APTITUD CARNICA	34 buru

ZUMARRAGA URRETXUKO SARIKETAK

OILASKOAK / POLLOS	6 pare
KAPOIAK / CAPONES	12 pare

ZUMARRAGAKO POSTUAK

Ahatearen deribatuak / Derivados del pato	4
Artisauak / Artesanos (Euskadi plazan)	13
Artisauak / Artesanos (Zelai Arizti pilotalekuan)	46
Beste batzuk / Varios, otros	1
Burdingegia / Ferreteria	7
Erroskilak / Rosquillas	2
Eztia / Miel	4
Jakiak / Alimentación	13
Gazta eta esnekiak / Quesos y lacteos	12
Gozogintza / Reposteria	18
Hestebeteak / Embutidos	6
Larrukiak / Marroquineria	2
Nekazaritza tresneria / Maquinaria agricola	15
Nekazaritzako elikagaiak / Productos agroalimentarios	1
Ogia / Pan	3
Oinetakoak, arropa eta osagarriak / Calzado, confección y complementos	26
Otarrak / Cestos	1
Sariketak: barazkia, fruta eta errezil sagar	14
Taloak / Talos	6
Turroiak / Turrones	2
Uhalgintza / Guarnicioneria	5
GUZTIRA	201

URRETXUKO SARIKETAK ETA OINARRIAK

URRETXUKO BARAZKI ETA FRUTA SARIKETA 2023

1.- BARAZKI ETA FRUTA

Partaideek norberak landutako barazki eta fruta aurkeztu beharko dituzte.

Sariketak bi atal berezi izango ditu:

- a) Barazkiak.
- b) Frutak.

2.- SARIKETAKO EPAIMAHAIA

Sariketako epaimahaia Urretxuko alkateak izendatuko du zinegotzi arduradunaren proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko nahiz pribatu edo jakitunen iritzia.

Epaimahaikideak gutxienez hiru teknikari izango dira, eta gehienez bost, guztiak gai honetan jakitunak. Teknikari horietako bat Epaimahaiko idazkaria izango da, eta erabakia agiri batean jasoko du. Erabaki agiriak udaletxeko Idazkaritzan egon beharko du abenduaren 13ko goizeko 11,30ak baino lehen.

Udalek izendatuko dituzten administrazio langileen laguntza jasoko du Epaimahaiak.

Aldez aurretik jakingo da zein diren epaimahaikideak.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horretarako honako irizpideak jarraituko ditu:

3.- KONTUAN HARTUKO DIREN EZAUGARRIAK

- a) Kalitatea (ekologikoa izatea, tamaina, itxura, kolorea, heldutasun puntua...).
- b) Aurkezteko era.
- d) Aniztasuna.

4.-SARIKETAKO BALDINTZAK

Urretxuko Santa Lutziko urteroko sariketan parte hartzeko :

1. **Nekazaritzako baserri erregistroaren agiria aurkeztea.**
2. **Barazkiak:** gutxienez 5 barazki mota aurkeztu beharko dira: mota bakoitzeko bi kilo gutxienez. Aleka saltzen diren produktuak, gutxienez dozena bat, mota bakoitzeko.
3. **Fruta:** gutxienez 5 fruta mota aurkeztu beharko dira eta gutxienez 2 kilo mota bakoitzeko.

Interesatuak aldeztu aurretik izena eman beharko du Urretxuko kultur etxean, urriaren 31 baino lehen, eguerdiko ordu biak baino lehen; 943-038088 telefonora deituz ere egin daiteke. Edozein modutan eskari ofiziala udaletxeko erregistroan behar bezala bete beharko da epe berean.

Izena ematerakoan, honako datuok ekarri beharko dira:

- Lehiakidearen izena eta 2 abizenak, helbidea eta N.A.N zenbakia.
- Nekazaritzako baserri erregistroaren agiria.
- Zein sariketan parte hartu nahi duen adierazi.
- Kontu zenbakia (20 digitu)

Postuak goizeko 9etarako jarri beharko dira, eta ordu horretarako jarri gabekorik ez da onartuko. Bakoitza non jarri Udalak erabakiko du.

5.- SARIAK

BARAZKI ETA FRUTA SARIKETA

**Sari kategoriara iristen direnek (gehienez 4)
250 euroko saria jasoko dute.**

**Ezkio-Itsaso, Gabiria, Legazpi, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarragako sarituei
100euroko gehigarria emango zaie.**

Saria jasotzen dutenek garaikurra ere izango dute.

Sariketako baldintzak betetzen dituztenek 100 euroko dieta jasoko dute, baina kontuan hartu behar da dieta bakarria emango dela baserriko (beraiek emandako kontu zenbakian sartuko zaie dirua).

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan, eguerdiko 13:30ean hasiko den ekitaldian.

Lehiakide sariduna sari banaketan ageri ez bada, sariari uko egin diola ulertuko da.

6.- OHARRAK

1.- Epaimahaiak komenigarria ikusten badu, produktuen benetakotasuna ziurtatzeko bisita bat egingo du.

2.- Sariketan parte hartzeak berekin dakar jarritako baldintzak onartzea.

3.- Parte hartzaile guztiei, bertako produktuak saltzeko aukera eskainiko zaie.



GIPUZKOAKO **ERLEZAIN** ELKARTEA®

EZTI LEHIAKETAKO BALDINTZAK

HELBURUAK

Eskualdean bertako ezti ekoizpena ezagutarazi eta bultzatu. Baina aldi berean, erlea eta erlezaintzaren garrantzia ezagutarazi, ingurumenari eta elikagai askoren ekoizpenari dagokionean landare-di mota ezberdinak polinizatuz. Honekin batera, eztiak gain dauden erlauntzako produktu desberdinak eta hauen onurak ezagutaraztea.

BALDINTZAK

- Ezti gordinak, berotu gabeko eztiak, eta erlezain berak **eskualdean** ekoiztuak izatea.
- Erlezain bakoitzak ezti berdinari dagokion **kilo-erdiko 2 poto** berdina aurkeztu behar ditu.

Eskualde bakoitzeko 3 finalistak, Zegaman martxoan ospatzen den Erlezain Eguneko Gipuzkoako Ezti Lehiaketan parte hartzeko sailkatzen dira .

PUNTUAKETA

- Hezetasuna: Eztiaren hezetasun maila neurtzen da refraktometroa izeneko aparailu baten bitartez. Hezetasuna %20tik behera behar du. Gurean, salbuespen bezala, hezetasun portzentai altuagoa izan dezakeen txilar ezti izango genuke.
Parametro garrantzitsua da, hezetasun altua duen ezti batek hartidura arazoak emango baititu denborarekin.
- Aurkezpena: Puntuaketa Otik 3ra (Ezti flaskoaren garbitasuna edukitzen da kontutan: tapa eta frasko garbia egotea bai eta fraskoa ez-tiz ondo beteta egotea ere).
- Egoera: Eztiaren egoera baloratzen da, hau da ezti erlauntzatik atera eta ontziratzen den arteko prozesua baldintza egokietan eta ondo egin dela ziurtatzen du egoerak. Ezti bera garbi egotea, partikula zikinik edo aparrak ez izatea. Honek ezti ondo filtratua eta ondo dekantatua izan den edo ez adierazten digu.

- Usaimen eta dastamena

Eztiaren usaimen eta dastamena erleak bistatutako landareen araberakoak izango dira, baina erlezainaren lanak ere baldintza dezake: ke-hauspoaren erabilera, ezti erauzteko modua, noiz eta nola kendu dien erleei, ezti atera den lekuaren baldintzak (usain, hezetasun...).

Usaimena: 0tik -3ra (Usain garbia izatea, ke-hauspo edo usain arrarorik ez izatea). Ezti argiek, basoko ezti ilunek baino usain gutxiago izango dute

Dastamena: 0tik -5era. Honek du garrantzi handiena. Dastatzaileari sortzen dizkion sentsazioetan datza: Zaporearen sarkortasuna, persistentzia, zapore desberdinen oreka....

Ezti irabazleak, ezti orekatu eta bereziak izateaz gain, aurkezpen eta egoerari dagokionean puntuaketa oso altua izan ohi dute.

SARIAK:

Lehenengo Saria:.....120€ eta garaikurra

Bigarren Saria100€ eta garaikurra

Hirugarren Saria<:.....80€ eta garaikurra



Urretxuko udala

“MANUEL RUIZ” ARABAKO ERRIOXAKO XXX. ARDO DASTAKETA KOMENTATUA “2023ko uzta” (urteko ardo gaztearen lehen dastaketa) eta ARABAKO ERRIOXAKO ARDO AZOKA

<p>EGITARAUA</p> <p>“MANUEL RUIZ” ARABAKO ERRIOXAKO XXX. ARDO DASTAKETA KOMENTATUA “2023ko uzta”</p> <p>ABENDUAK 12, asteartea 18:00etan.- Iparragirre plazan, Ardo Azokaren inaugurazioa, eta dastaketarako diren botilak jasotzea.</p> <p>19:00etan.- Urretxuko udaletxean, dastaketa eta azalpenak (jendearentzako irekia).</p> <p>22:00etan.- Saltokien itxiera (zinpeko zaintzaileek zainduko dute gauean 9:00ak arte).</p> <p>ARABAKO ERRIOXAKO ARDO AZOKA</p> <p>ABENDUAK 12 eta 13 Ordutegia: Abenduak 12 18:00 – 22:00 Abenduak 13 09:00 – 16:00 Lekua: Iparragirre plaza (Urretxu)</p>
--

OINARRIAK

1. Bodega bakoitzak “2023ko uztako” Arabako Errioxako 8 botila aurkeztuko ditu dastaketara. Abenduaren 12an, arratsaldeko 18:00etan antolatzaileek jaso egingo dituzte botila horiek, bodegak jendeari saltzeko eta kontsumorako jarrita izango duen txosnatik bertatik.
2. Abenduaren 12an, 19:00etan emango zaio hasiera dastatze lanari,
3. Udalak luzeran hiru metroko saltokiak jarriko ditu, eta baita kopen zerbitzua ere.
4. Bodega bakoitzak jarrita dituen prezioetan sal ditzake botilak eta kaxak; basoerdiak, berriz, euro 1etan salduko dira.
5. Antolatzaileak arduratuko dira abenduaren 12an gauez (22:00 – 13ko 09:00), saltokiak zaintzeaz.
6. Azokan parte hartzeak oinarri hauek goitik behera onartzea dakar berekin.



Urretxuko udala

**XXX CATA COMENTADA "MANUEL RUIZ" "cosecha 2023"
(primera cata del primer vino joven del año)
y FERIA DE VINO DE RIOJA ALAVESA**

PROGRAMA

**XXX CATA COMENTADA "MANUEL RUIZ" "cosecha 2023"
(primera cata del primer vino joven del año)**

12 DE DICIEMBRE, martes

18:00 Plaza Iparragirre, inauguración de la feria y recogida de botellas para la cata.

19:00 Cata comentada en el Ayuntamiento de Urretxu.

22:00 Cierre de la feria (habrá seguridad desde las 22:00 del día 12 hasta las 9:00 del día 13)

FERIA DE VINO DE RIOJA ALAVESA

12 y 13 DE DICIEMBRE

Horario: 12 de diciembre 18:00 – 22:00

13 de diciembre 09:00 – 16:00

Lugar: Iparragirre plaza (Urretxu)

BASES

- 1.- Cada bodega presentará 8 botellas de vino de Rioja Alavesa "Cosecha de 2023". Esas botellas serán recogidas a las 18:00 del día 12 por la propia organización de entre las botellas que la bodega tenga en el stand para la venta y consumo del público.
- 2.- El 12 de diciembre, a las 19:00 se realizará la cata abierta en el salón de entrada del Ayuntamiento con todos los vinos y dirigida al público.
- 3.- El Ayuntamiento proporciona 3 m lineales de stand y se hace cargo del servicio de copas.
- 4.- Las botellas y cajas se podrán vender a los precios que cada bodega tenga estipulados; los txikitos se venderán a 1,00 euro.
- 5.- La organización se hace cargo del cuidado de los stands el día 12 a la noche (22:00 – 09:00 del día 13).
- 6.- El hecho de participar en esta feria implica la plena aceptación de las presentes bases.



Urretxuko udala

2023ko Santa Lutzi Feria
-URRETXU-

URRETXU	
PARTAIDETZA DATUAK	2023
URRETXUKO SARIKETAK	
BARAZKIA / VERDURAS	3 partaide
FRUTA	3 partaide
EZTIA / MIEL	egunean bertan jakingo da
ZUMARRAGA URRETXUKO SARIKETAK (berdin UZ)	
OILASKOAK / POLLOS	6 pare
KAPOIAK / CAPONES	12 pare
URRETXUKO POSTUAK	
ARABAKO ERRIOXAKO bodega / bodegas RIOJA ALAVESA (Iparragirre plaza)	9
Artisauak / Artesanos (Iparragirre kalea)	13
Artisauak / Artesanos (Abenida kalea)	3
Gernikako Arbola plaza (44)(iaztik+8)	
Fruta eta barazkiak / frutas y verduras	4
Erroskilak, barkiloak / Rosquillas, barquillos	2
Eztia / Miel	2
Gazta / Queso	6
Hestebeteak / Embutidos	2
Ahatekiak	2
Kontserbak eta ozpinetakoak /conservas y encurtidos	3
Ogia, euskal pastela eta gozogintza / Pan, pastelería y pastel vasco	9
Elikagai nahasiak	
Konfiteria, garrapiñatuak eta txokolateak / confiteria, garrapiñadas y chocola	2
Ukendu, xaboi eta besteak / ungüentos, jabones y otros	5
hazi jangarriak	1
lorak eta landareak	0
pintxo eta bokadilloak	1
Areizaga plaza (5)(-1)	
Taloak / Talos	2
Pintxo eta bokadilloak	2
elkarte, ikastetxe edo ONGak	1
beste leku batzuk (Labeaga kalea 1)	
ATERKIA inklusiorako proiektua	1
Lizeoko jolastokia eta Labeaga kalea	
* Labeaga kalean 32 eta Lizeoko jolastokian 22 era guztietako salmenta / venta variada en la calle Labeaga y el patio del Liceo	54
GUZTIRA (iaztik +3)	124

**ZUMARRAGAKO – URRETXUKO
SARIKETAK ETA OINARRIAK**

URRETXU-ZUMARRAGAKO OILASKO SARIKETAKO

ARAUDIA 2023

1.- ARRAZAK

Sariketa honetan Euskal Herriko baserrietako larreetan ibili ohi diren EUSKAL OILOA ARRAZAKO eta ARRAZA ARRUNTEKO oilaskoek parte hartu ahal izango dute. Arraza bakoitzak bete beharko dituen baldintzak hauek izango dira:

1.1.- EUSKAL OILOA ARRAZAKO OILASKOAK

Euskal oiloa arrazak dituen 5 motetako edozein aurkeztu ahal izango da, hau da, MARRADUNA, GORRIA, LEPASOILA, BELTZA edo ZILARRA. **Baserrri bakoitzeko oilasko pare 1 aurkez daiteke** eta 6 hilabete baino gutxiagokoa izan beharko du .

Bikote onenak izendatu ahal izateko, lumaren kolorea, distira, tamaina, itxura, eta arraza nahiz mota bakoitzaren ezaugarri bereziak izango dituzte kontuan epaimahaikideek irizpide nagusi gisa.

1.2.- ARRAZA ARRUNTEKO OILASKOAK

Oilasko hauetan ere **pare 1 aurkeztu daitezke**, eta 6 hilabete baino gutxiagokoa izan beharko du.

Bikote onenak izendatu ahal izateko, itxura eta haragitarako duten gaitasuna hartuko dituzte kontuan epaimahaikoek irizpide nagusi gisa.

2.- SARIKETAKO EPAIMAHAIA

Sariketako epaimahaia Urretxu eta Zumarragako alkateek izendatuko dute zinegotzi arduradunen proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko nahiz pribatu edo jakitunen iritzia.

Epaimahaikideak gutxienez bi teknikari izango dira, eta gehienez bost, guztiak gai honetan jakitunak.

Udalek izendatuko dituzten langileen laguntza jasoko du Epaimahaiak.
Aldez aurretik jakingo da zein diren epaimahaikideak.
Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

3.- SARIKETAKO BALDINTZAK

Urretxu-Zumarragako Santa Lutziko oilasko sariketan parte hartzeko, oilaskozale bakoitzak oilaskoak garbi eta txukun, osasunez ondo daudenak, eta 1. puntuari esandako baldintzak betetzen dituztenak aurkeztu beharko ditu. Lehiaketatik kanpo geratuko dira gaixotasunen bat duten oilaskoak.

Oilaskozaleak aldeztu aurretik izena eman beharko du Urretxuko kultur etxean nahiz Zumarragako kultur etxean, **azaroaren 21eko** eguerdiko 12ak baino lehen; 943-03.80.88 edo 943-72.35.10 telefonoetara deituz ere egin daiteke.

Izena ematerakoan honako datuok ekarri beharko dira:

- Oilaskozalearen izena, helbidea eta N.A. zenbakia.
- Oilaskoak hazitako baserriaren izena eta ustiaketa txartel zenbakia.
- Kontu zenbakia (20 digitu)

Oilaskozaleak berak ekarri beharko ditu oilaskoak, hegaztiak lekuz aldatzeko baimen txartelarekin batera eta antolatzaileen aurrean aurkeztu abenduaren 13ko goizeko 7,30etatik 8,30etara bitartean, Kalebarren-Areizaga plazan. Momentu horretan, bertan egongo den albaitariak oniritzia eman beharko dio bai animalari baita dokumentazioari ere. Oilaskoak, berriz, ezin izango dira jaso eguerdiko ordu biak arte.

- **Oharra:** Hegaztiak lekuz aldatzeko baimen txartela aurkeztea ezinbestekoa da parte hartzeko

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko sariketara ekarritako oilaskoen lapurretarik, ez oilaskoen min hartzerik, ez bestelakorik.

4.- SARIAK

2023ko sariak honakoak izango dira:

4.1. Euskal oiloa arrazako oilaskoak:

3 sari (gehienez) 125€koak (Eskualdekoa* bada 80€ko gehigarria izango du)

4.2. Arraza arrunteko oilaskoak:

3 sari (gehienez) 100€koak (Eskualdekoa* bada 80€ko gehigarria izango du)

Sariekin batera garaikurra emango da.

Sariketan parte hartu baina saririk jaso ez duen gainerako pareagatik 20 euroko dieta jasoko dute (beraiek emandako kontu zenbakian sartuko zaie dirua).

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan eguerdiko 1,30etan hasiko den ekitaldian.

Oilaskozalea ez bada ageri sari banaketan, sariari uko egin diola ulertuko da.

Oharrak:

- Kapoi zaleak bere kapoiak saltzeko aukera du eta informazio orri batez erraztu egingo zaio.
- Eskualdean*: Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkio-Itsaso, Gabiri eta Ormaiztegi sartzen dira.

URRETXU-ZUMARRAGAKO KAPOI SARIKETAKO

ARAUDIA 2023

1.- KAPOIA

Sariketa honetarako, ebakuntza bidez bi barrabilak kendu zaizkion oilaskoa hartuko da kapoitzat (Faisaien adarreko *gallus gallus* motakoa).

Irenduta egongo denez, kapoiak ez du hankatako ezproirik izango, ezta kukurrik ere, eta baldin badu, txikia eta zuri-gorrixka izango du. **Kukurra ezingo da moztuta egon.** Belarri alde eta lepezpi aldeak ere zuri-gorrixkak izan beharko ditu. Ez du kukurrukurrik joko, txistu moduko txiki bat baizik.

2.- ARRAZAK

2.1.- EUSKAL OILOA ARRAZAKO KAPOIAK:

Euskal oiloa arrazako kapoiak, MARRADUNAK, GORRIAK, LEPASOILAK, BELTZAK eta ZILARRAK izan daitezke. **Baserri bakoitzeko 3 kapoi pare aurkez daiteke** eta 12 hilabete baino gutxiagokoa izan beharko du.

Bikote onenak izendatu ahal izateko, kapoiaren, lumaren kolorea, distira, tamaina, itxura, eta arraza nahiz mota bakoitzaren ezaugarri bereziak hartuko dituzte kontuan epaimahaikideek irizpide nagusi gisa.

2.2.- ARRAZA ARRUNTEKO KAPOIAK:

Kapoi hauetan ere **3 pare aurkeztu ahal izango dira**, eta 12 hilabete baino gutxiagokoa izan beharko du.

Bikote onenak izendatu ahal izateko, itxura eta haragitarako duten gaitasuna hartuko dituzte kontuan epaimahaikideek irizpide nagusi gisa.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

3.- SARIKETAKO EPAIMAHAIA

Sariketako epaimahaia Urretxu eta Zumarragako alkateek izendatuko dute zinegotzi arduradunen proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko nahiz pribatu edo jakitunen iritzia.

Epaimahaikideak gutxienez bi teknikari izango dira, eta gehienez bost, guztiak gai honetan jakitunak.

Udalek izendatuko dituzten langileen laguntza jasoko du Epaimahaiak.
Aldez aurretik jakingo da zein diren epaimahaikideak.
Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

4.- SARIKETAKO BALDINTZAK

Urretxu-Zumarragako Santa Lutziko kapoi sariketan parte hartzeko, kapoizaleak kapoiak garbi eta txukun, osasunez ondo daudenak, eta 1. puntuan esandako baldintzak betetzen dituztenak aurkeztu beharko ditu. Lehiaketatik kanpo geratuko dira gaixotasunen bat duten kapoiak.

Kapoizaleak alde zuzenetik izena eman beharko du Urretxuko kultur etxean nahiz Zumarragako kultur etxean, **azaroaren 21eko** eguerdiko 12ak baino lehen; 943-03.80.88 edo 943-72.35.10 telefonoetara deituz ere egin daiteke.

Izena ematerakoan honako datuok ekarri beharko dira:

- Kapoizalearen izena, helbidea eta NA zenbakia.
- Kapoiak hazi diren baserriaren izena eta ustiaketa txartel zenbakia.
- Kontu zenbakia (20 digitu)

Kapoizaleak berak ekarri beharko ditu kapoi pareak, hegaztiak lekuz aldatzeko baimen txartelarekin batera, eta antolatzaileen aurrean aurkeztu abenduaren 13ko goizeko 7,30etatik 8,30etara bitartean, Kalebarren-Areizaga plazan. Momentu horretan, bertan egongo den albaitariak oniritzia eman beharko dio bai animalari baita dokumentazioari ere. Kapoiak, berriz, ezin izango dira jaso eguerdiko ordu biak arte.

- **Oharra:** Hegaztiak lekuz aldatzeko baimen txartela aurkeztea ezinbestekoa da parte hartzeko.

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko sariketara ekarritako kapoien lapurretarik, ez kapoien min hartzerik, ez bestelakorik.

5.- SARIAK

2023ko sariak honakoak izango dira:

5.1. Euskal oiloa arrazako kapoiak:

3 sari (gehienez) 150€koak. (Eskualdekoa* bada 100€ko gehigarri bat izango du)

5.2. Arraza arrunteko kapoiak:

3 sari (gehienez) 125€koak. (Eskualdekoa* bada 100€ko gehigarri bat izango du)

Sariekin batera garaikurra emango da.

Sariketan parte hartu baina saririk jaso ez duten gainerako pareengatik 25 euroko dieta jasoko dute (beraiek emandako kontu zenbakian sartuko zaie dirua).

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan eguerdiko 1,30etan hasiko den ekitaldian.

Kapoizalea ez bada ageri sari banaketan, sariari uko egin diola ulertuko da.

Oharrak:

- Kapoi zaleak bere kapoiak saltzeko aukera du eta informazio orri batez erraztu egingo zaio.
- Eskualdean* Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Ormaiztegi sartzen dira.

SANTA LUTZI FERIAKO XXIX. ARGAZKI RALLYA OINARRIAK

PARTAIDEAK: Nahi duten zale guztiek parte hartu ahal izango dute, kamera digitalarekin eta berezko txartelarekin.

IZEN EMATEA: Urretxuko Kultur Etxean, Jauregi kalean, 2023ko abenduaren 13an, goizeko 9etatik 10etara. Izena emateko unean bertan 5 € ordaindu beharko da. Adingabeak 16 urte arte (16 barne), dohainik.

LANAK: Digitala, JPEG. Nahi diren argazki guztiak atera ahal izango dira, horietatik 36 aurkeztuz.

GAIA: Gaiak izena ematerako orduan jakinaraziko dira.

AURKEZPENA: Tarjeta deskargatzeko, Urretxuko Kultur Etxean 13:30etatik 14:00etara.

OBRAK LEHIAKETARA AURKEZTEA: Aurkeztu beharreko bilduma 6 argazkik osatuko dute. Abenduaren 15ean, eguerdiko 14:00etan baino lehen argazkilari bakoitzak mezu bat bidaliko du ondoko helbidera: argazkielkartea@gmail.com bertan, kontroleko argazkiak eta aukeratutako 6 argazkien zenbakiak zehaztuko ditu.

EPAIMAHAIIA: Gutxienez hiru pertsona izango dira, argazkigintzan ospe handikoak.

ERABAKIA ETA SARI BANAKETA: Erabakia hartzeko saioa eta saria banaketaren ekitaldia jendaurrean egingo dira. Erabakia hartzeko saioa 2023ko abenduaren 21ean, arratsaldeko 18:30ean, Urretxuko kultur etxean. Sari banaketaren ekitaldia, berriz, 2024ko urtarrilaren 3an, Urretxuko udaletxean arratsaldeko 19:00etan.

SARIAK: Honako sari hauek izango dira:

- Argazki bilduma onenari:	250 € eta garaikurra.
- Bigarren bilduma onenari:	200 € eta garaikurra.
- Hirugarren bilduma onenari:	150 € eta garaikurra.
- Herriko bilduma onenari:	100 € eta garaikurra.
- Gaztetxoen bilduma onenari:	50 € eta diploma.
- Gaztetxoen bigarren bilduma onenari:	30 € eta diploma.
- Gaztetxoen hirugarren bilduma onenari:	20 € eta diploma.

Bide batez, argazki saridunak edo argazki aukeratu batzuk erabiliko dira Santa Lutzi Feria 2024 programan.

OHARRAK: Inork ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu.

Argazki lehiaketan parte hartzen duenak goitik behera onartzen ditu oinarri hauek. Oinarriotan jaso gabeko gorabehera oro antolatzaileek erabakiko dute. Sariaren bat irabazitako bildumak antolatzaileen esku geratuko dira. Lan guztien erabilera eta erreproduzio eskubidea beretzat erreserbatuko dute antolatzaileek, lanen jatorria aipatuz beti ere. Ez dira onartuko ebakinak, ukituak edo kameraren sormenezko aplikazioak, ezta kanpokoak ere.

ARGIBIDEREN BAT NAHI IZANEZ GERO, EDO INFORMAZIO ZABALAGOA, URRETXUKO KULTUR ETXEAREKIN JARRI BEHAR DA HARREMANETAN. 943 03 80 88.

XXIX. RALLY FOTOGRÁFICO FERIA DE SANTA LUCÍA

BASES

PARTICIPANTES: Podrán tomar parte todos/as los/as aficionados/as con cámara digital y tarjeta propia que lo deseen.

INSCRIPCIÓN: Se realizará en la Casa de Cultura de Urretxu, c/ Jauregi, de 9 a 10 horas, el día 13 de diciembre de 2023. La inscripción será de 5 €. Menores hasta 16 años (incluidos) gratis.

OBRAS: FORMATO DIGITAL .jpg. Se realizará un nº ilimitado de fotos de las cuales se entregarán 36.

TEMAS: Los temas se darán a conocer en el momento de la inscripción.

PRESENTACIÓN: Las tarjetas se descargarán en la Casa de Cultura de Urretxu entre las 13:30h y las 14:00 horas.

PRESENTACIÓN DE OBRAS A CONCURSO: Cada participante podrá presentar solamente una colección de 6 fotos de entre las 36 previamente presentadas. La entrega se realizará mandando un e-mail a la siguiente dirección: argazkielkartea@gmail.com identificándose con el número de concursante e indicando el número de las fotos elegidas para la colección, antes del día 15 de diciembre a las 14:00h.

JURADO: Estará compuesto por al menos tres personas de reconocido prestigio.

FALLO y ENTREGA DE PREMIOS: La sesión del fallo será pública y se realizará el jueves 21 de diciembre de 2023 a las 18:30 horas en la Casa de Cultura de Urretxu. La entrega de premios se realizará el miércoles 3 de enero de 2024 a las 19:00 horas en el portalón del Ayuntamiento de Urretxu.

PREMIOS: Se establecen los siguientes premios:

- | | |
|---|-----------------|
| . A la mejor colección fotográfica | 250 € y trofeo. |
| . A la segunda mejor colección | 200 € y trofeo |
| . A la tercera mejor colección | 150 € y trofeo |
| . A la mejor colección local | 100 € y trofeo. |
| | |
| . A la mejor colección infantil | 50 € y diploma. |
| - A la segunda mejor colección infantil | 30 € y diploma. |
| - A la tercera mejor colección infantil | 20 € y diploma. |

Además, las fotografías premiadas o una selección de las mismas, se utilizarán en el programa de Santa Lutzí FERIA 2024.

OBSERVACIONES: Ningún autor podrá obtener más de un premio.

El hecho de participar en el concurso fotográfico supone la total aceptación de las bases. Cualquier incidencia no reflejada en las mismas será resuelta por la organización.

Las obras premiadas quedarán en poder de la Organización, reservándose el derecho de uso y reproducción, siempre que se cite su procedencia.

No se permitirá recorte, retoque ni aplicaciones creativas de la cámara, ni fuera de ella.

PARA SOLICITAR ALGUNA ACLARACION O DISPONER DE MAYOR INFORMACIÓN PONERSE EN CONTACTO CON LA CASA DE CULTURA DE URRETXU. TELÉFONO: 943-03.80.88